

Oker dabil  Euskal Herrian literaturak ez duela ondorengorik esaten duena oker dabil  Idaztea gutxi batzuen kontua dela baieztatzen duena ere oker dabil  Gazteek ez dutela sormenik diotena ere oker dabil  Oker dabil literatura gaztea ezkutuan dagoela esaten duena  Izan ere, badira idazle gazteak, eta horren adibide pare bat ekarri nahi izan ditu **Barkatu** ama-k ondoko lerrotara: Vladimir eta Urruzuno.

▼ gari garaialde



Ezkerretik eskuinera, Jon Garate, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Unai Villena eta Jon Eugi, Urruzuno taldeko kideak.

Literaturaren

ane sarasketa

Ondoko argazkietan ageri diren gazteak idazleak dira. Batzuk ezagunak, beste batzuk ez hain ezagunak, baina idazleak guztiak ere. Horrek batzen ditu: literaturarako zaletasuna. Baina, bestalde, bi taldeak literaturaren zabaltasunean kokatuz gero, bi aurpegi oso ezberdin erakusten dituzte. Vladimir taldeak filosofia eta ideologia jakin bat du, eta hori ardatz dutela, hilabetero beren aldizkaria kaleratzen dute: *Vladimir*. Urruzuno taldeko kideek, berriz, *Hamaika Literatura* izeneko aldizkaria sortu berri dute. Lehen alea kalean da dagoeneko, eta ideologia eta filosofiarik gabeko taldea eta aldizkaria da elgoibartar horiena.

«Idazle gazteen taldeak badira Euskal Herrian»

 Pedro Migel Urruzuno idazlea hil zela 75 urte bete ziren iaz. Urteurren hori aukeratu zuten Elgoibarko zenbait gaztek literatur talde bat osatzeko: Jon Garatek, Mikel Artolak, Unai Villenak, Iñigo Otañok, Jasone Osorok eta Jon Eugik.

Hala, Elgoibarko Izarra euskara elkartearen barruan sortu zen literatura gaztearen harrobi txikia. Orain, hilabete gutxi batzuk bete berri dituenean, aldizkari bat kaleratu du Urruzuno taldeak: *Hamaika Literatura*.

Belaunaldi ezberdinetakoak dira Urruzunoko kideak, baina guztiek

idaztea dute gustuko, eta horrek lotzen ditu. «Taldeen ez dugu ardatzik, filosofiarik edo ideologiarik. Sentitzen duguna idazten dugu, ez dugu inolako mugarik edo eredurik», diote. Orain, uda bitartean badute lanik: atera berri den aldizkariaren bigarren zenbakia prestatzea alegia.

'Hamaika Literatura', jateko pintxo bat

 *Hamaika Literatura*-k formatu berezia du. «Euskara elkarte baten barruan gaudenez, aurrekontu bat dugu, eta horrek aukerak ematen dizkigu produktu txukuna kaleratzeko. Azken finean argi genuen jendeari erakargarria egingo zaion zerbait nahi genuela», adierazi du Jasone Osorok.

Lau mila ale banatu zituzten lehenengo aldian, baina bigarren alea bazkide egiten direnek bakarrik jasoko dute, doan. Bazkide egiteko ondoko zenbakietara deitzea besterik ez dago: 64 41 12 edo 74 16 26. «Literatura gastronomia balitz, *Hamaika Literatura* pintxo bat

ko kideak; izan ere, gaur hitzaldia antolatu dute Elgoibarko kultur etxean. Ana Irigoienek Frida Kahlori buruzko solasaldia eta diapositibak eskainiko ditu, 19:00etan. Bestalde, hasi dira prestatzen *Hamaika Literatura* aldizkariaren bigarren alea; izan ere, urtaro bakoitzeko zenbaki berri bat eman nahi baitute argitara.

Literaturak esfortzua eskatzen duela diote sei kideek, baina horretarako prest agertu dira. Unairen esanetan, Urruzuno taldea sortu zutenean eurentzako sortu zuten. «*Hamaika Literatura*-rekin ere gure lanak bideratzea lortu nahi dugu. Ez dakit lortuko dugun literatura suspertzea herrian eta kanpoan, baina guk konpromiso bat hartu dugu, eta konpromiso horrekin idazten jarraitzen dugu. Gure lanek badute nonbait agertzeko aukera. Aukera hau izango ez bagenu, seguru asko, gutako batzuek ez genuke idazten jarraituko», esan du.

Amaitu aurretik zera galdetu diegu: «Zergatik daude idazle gazteen hain talde gutxi? «Ez dira hain gutxi», esan dute ia une berean. «Euskal Herria moduko lurralde txiki batentzako nahiko talde daudela esango nuke nik», dio Jon Eugik, seguru.

«Gainera, gero eta liburu gehiago argitaratzen dira, beraz merkatua badagoela dirudi», gehitu du Jasonek. Belaunaldien katea ez da hautsi beraz. Izango dira euskal idazleak etorkizunean.

«guk konpromiso bat hartu dugu, eta konpromiso horrekin idazten jarraitzen dugu»

izango litzateke. Ea jendeak pintxo bat jaten duen eta gero beste bat, hala literatura jatera ohitzeko gero», esan dute.

Orain abian dira berriro Urruzuno-

Ezkerretik eskuinera Garikoitz Berasaluze, Jurgi Otaño, Gurrutxaga eta Ekaitz Berasaluze Vladimir taldeko kideak.



▲ gari garaialde